

astejorran

• BEGOÑA ERRAZTI •

[EUSKO ALKARTASUNEKO PARLAMENTARIOA]

Eta Nafarroan? Zaharrak berri

Bukatu dira oporrak, eta eman diogu hasiera kurtso politiko berriari Nafarroan ere. Egia esan, legegintzaldiari ari gatzazkio hasiera ematen, ekainaren 13ko ajeak pasatzen ari ginela uda etorri baitzitzagun, eta ez baikenuen ia ezer egiteko astirik izan. Hala ere, gauzak aldakuntza zirela entzun genuen, Parlamentua indar politiko guztien topalekua izango zela..., baina hasteaz bat ikusi dugu egoerak ez duela inolako aldaketarik izan; eta Nafarroan aspalditik gertatzen den bezala, zaharrak berri direla.

Aste honetan Parlamentuko Mahaia eta Bozeramaile Batzordea bildu dira. Eta dagoeneko egin dute lehen blokeo parlamentarioa; izan ere ez baitute tramitera onartu Eusko Alkartasunak egindako eskaera, hau da, Kontuen Ganberari eskatzca Nafarroako A-15 Autopistaren pribatizazioak Administrazioari ekar liezazkiokeen kostuen aholku-txosten bat egin dezala. Eta ezezeko honetan bat egin dute UPNk eta PSNk. Harrigarria benetan PSNren postura, izan ere hauteskunde kanpainan ez baitu ia beste argudiorik izan A-15 Autopistaren pribatizazioa baino. Agian UPNtik agintzen zitzaizkigun forma berrien parte dira...; izan ere, agintean eta oposizioan batera egon nahi izate horren ondorioz, PSNren aldetik horrelako jarrera ugari ikusi behar izango baititugu legegintzaldi honetan.

Egia esan, hauek berdin jarraitzen dute, nahi dutena eginez eta Parlamentuaren borondateari erabateko mesprezua azalduz. Horrela egin zuten lehenago ere EAE eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Hitzarmena baztertuz, eta orain ere berdin jarraitzen dute Nafarroako Gobernuan ia lehen zeuden sailburu berak ipiniz, Parlamentuak espreski errefusatutakoak barne... Oroimenean ditugu irrati eskaintza lehiaketan erabilitako irizpideak euskaraz diharduen irrati bat baztertzeko. Zer gertatu behar du Nafarroan euskararekin? Eta zer esanik ez bake prozesuarekin, hor ikusten baitugu egunero Sanz jauna ahal badu Mayor Oreja bera baino gogorrago azalduz.

Dagoeneko garaia da bake prozesua eta aldaketa politikoa bultzatu eta burutzeko. Politikagintzan gabiltzanok erantzukizun berezia dugu honi erabateko konponbidea emateko eta Nafarroko zeresan handia daukagu honetan. Bada ordua Estatu mailan zentzu honetan pauso serioen bat emateko, oraindik ikusten baita nortzuek egin nahi dugun aurrera eta nortzuek nahi duten iraganean gelditu. Beharrezkoa da konponbidea lortzea eta gogor jarraitu behar dugu lanean. Bake itxaropenak pizturik jarraitzen du Euskal Herrian, dagoeneko urtebete igaro da Lizarrako aldarrikapena eta ETaren su-etena izan zirenetik, eta oraindik bide luzea dugu egiteko.

• ALBERTO CATALAN HIGUERAS •

[UPNKO BOZERAMAILEA NAFARROAKO PARLAMENTUAN]

Eskola aldia hasi da, bai eta politikoa ere

Duela egun gutxi hasi zen ikasturte berria Nafarroako ikastetxeetan, eta, ekainaren 13ko hauteskundeen ajea oraindik gainetik kendu gabe, hilaren 13an urte politikoa Nafarroako Parlamentuan. Hauteskunde haietan UPN sendotuta atera zen indar politiko gisa, Nafarroan gehiengo baitu, ez bakarrik orokorrean, bai eta Nafarroako merindade historiko guztietan ere.

Batzuek ohorezko matrikularekin gainditu zuten ekaineko azterketa, beste batzuek ozta-ozta baino ez, eta zenbaitek ez zuten inola ere gainditu, eta *kalabaza* bat baino gehiago irabazteko merezimenduak egin zituzten. Hori guztia, gainera, irailean errekupeazioa gainditzeko ahalmenik gabe.

Nafarroako Gobernua eratuta dago, eta ia erabat zehaztuta haren organigrama, eta ibilbide berria hasi da. Ganbera legegileak ilusio eta kezka berriak ditu, baina aurreko legegintzaldian planteatutako errebindikazioak ere leku bat izaten ari dira, batzuetan are orduan baztertutako jarraitu hartuz ere, eta, zergatik ez esan, hurrengo hauteskunde orokorrak gogoan izanik, deia, ziur aski, 2000. urteko lehen hiruhilekoaren amaieran egingo baita.

Horregatik, hauteskundeak egin arte hilabete gutxi falta direla ikusita, baliteke hauteskunde kanpaina uste baino lehenago hastea, eta talde poli-

tikoak kezkatuago egotea galdutako botoak berreskuratzeko nafarren benetako arazoak konpontzeko ekimenak izateaz baino. Espero izan dezagun, oposizioko taldeek aldi honetan izan dezaketen demagogia guztia gorabehera, nafarren kezkei erantzuten jarraitzea.

Gainontzeko guztia, euskal alderdi nazionalistek deitutako Euskal Herriko Udal Hautetsien Biltzarra bera barne, Nafarroako herriak adierazitako borondateetik urruntzea baino ez da. Izan ere, herriaren borondatea eta benetako demokrazia errespetatzeaz behin eta berriro hitz egiten dutenek beste behin baztertuko dute nafarren nahia, harrokeriaz hainbat helburu dituztela esan arren, gero, praktikan, ez dituztelako betetzen.

Zorioneko gara ikusten baitugu Euskal Autonomia Erkidegoan darabiltzaten politika baztertzailak ez dutela zentzurik Nafarroan, eta nafarrek ez dituztela bere egiten; aitzitik, errefusatu egiten dituzte. Duela hilabete gutxi egindako azken herri kontsultak postulatu hori berretsi du, gauzak berri ere oso argi utzi baititu; izan ere, saritu egin ditu herriaren konfiantza duten aukerak, Nafarroa zuzenagoa, aurrerazalegoa eta aitzindariagoa bihurtzen baitute, eta zigortu aurreko lau urteetan ezer gutxi erakutsi zuten alderdiak.

* Erredakzioan itzulia

gogoratuz

• JOXAN ELOSEGI •

• Duela 208 urte

Gaspar Jauregi 'Artzaia'

L1791ko irailaren 15ean (19an diote beste batzuek) sortu zen Urretxun Gaspar Jauregi, gerokoan *Artzaia* goitizinez famatuko zen gerrilaria. Nekazari familia guztiz xumean sortua zen eta artzain ibilia zen umetan eta gaztetxotan, horregatik Artzaia. Urte latzak izan ziren XVIII. eta XIX. mendeen arteko urte haiek, Frantziako Konbentzioaren aurkako gerrak miseria gorrian utzi zituen Gipuzkoako eta inguruetakoa baserriak, jende askok mendira jo behar izan zuen bizirik iraungo ba-

zuen eta nabarmen ugaltu ziren han-hemenka erdi-nomada ibili eta bizitzak legez kanpora eskaintzen dituen bideez baliatu behar izan zuten giza taldeak.

Giro hartan hazi zen Jauregi *Artzaia* eta arabararen erantzun zion aurrean zeukanari. 1810ko martxoan ekin zion Bonaparteren armadaren aurkako gerrilari eta Espoz Minaren ordezkaria zen Gipuzkoan udazken hartarako. Ernea zen Jauregi eta gerra-buruzagi frantsesek ez zekiten nola aurre egin. 1812an, haren agin-

duetara bildu ziren Gipuzkoan frantsesen aurka ziharduten guztiak, Tomas Zumalakarregi tarteko. Balentria ikusgarriak egin zituen Artzaia Deban eta Lekeition, eta erabakiorrak izan ziren berak gidaturiko batailoak Gasteiz eta Irungo San Martzialeko guduetan.

Bonaparteren aurkako gerra bukatu ondoren, bazterrean utzi zuen Fernando VII.aren gobernuak, haren komandante titulua eta jasoriko balazoa aintzat hartu gabe. Herriko alkate izendatu zuten ordea. Hogeita

hiru urte zituen. 1815ean huts egin zuen absolutisten aurkako konspirazio batean eta erbesteratu jo behar izan zuen. Liberalen alde itzuli zen 1820an, baina San Luisen Ehun Milla Semeek preso hartu eta Frantziara eraman zuten 1823an. Liberalek berriro deitu ondoren, Gipuzkoako lehen agintari militar jardun zuen Zumalakarregiren aurka lehen gerra karlistan. Ez zuten buruz buruko gudurik egin. Gerra bukatu eta gero, ohorez bete zuen Espainiako monarkia liberalak, mariskal egiteraino.

Zumalakarregik erakutsi omen zion irakurtzen eta idazten Jauregiri. Gerrilaren artea honek karlisten buruzagiari. Estali egin du historiak Artzaia, goraldu Zumalakarregi. Halaz ere, xuxen-xuxen ez dakigu zer joerak erabili zuen bata nahiz beste. Halakoxea da historia.